



**DEIALDIA, IZANGAIEN ZERRENDA BAT OSATZEKO, ALDI BATERAKO
KONTRATAZIOAK EGITEKO IRAKASLE POSTUETAN SORTZEN DIREN
BEHARREI ERANTZUTE ALDERA, BIBOLIN ESPEZIALITATEAN.**

1. OINARRIA.- ARAU OROKORRAK.

1.1. Deialdi honen xedea da izangaien zerrenda bat eratzea, Etxarri Aranazko musika eskolan irakasle aritzeko, sortzen diren aldi baterako beharrei erantzutearren. Zerrenda erabil daiteke lanpostu hutsak bitarteko kontratuekin betetzeko, laneko bajengatik behin-behineko ordezkapenak egiteko, oporretarako eta udal zerbitzuak indartzeko behar puntualetarako.

Deialdi hau ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak, Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamenduak, aldi baterako langileen hautaketa arautzen duenak, 42.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera egiten da. Hori dela eta, Etxarri Aranazko Udalak Altsasuko Enplegu Bulegoari eskatuko dio deialdi honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten enplegu-eskatzailen zerrenda (enplegua hobetzekoak barne).

Onartuko dira, halaber, enplegu-eskatzaille edo enplegu-hobekuntzako eskatzaille izan eta deialdiaren baldintzak (2. oinarria) betetzen dituzten pertsonak, baldin eta deialdi honetan agertzen den I. eranskinaren arabera, ezarritako epean horretarako aurkeztutako eskabidean parte hartzea eskatzen badute, nahiz eta Altsasuko Enplegu Ofizialaren zerrendan ez egon.

1.2. Kontratazioaren helburua da Etxarri Aranazko Musika Eskolak sor daitezkeen beharrei aldi baterako estaldura ematea, bibolin espezialitatean.

1.3. Lanaldiaren araubidea eta ordutegia Udalak lanpostu horretarako ezarritakoak izanen dira, zerbitzuaren beharretara egokituko dira beti, eta organo eskudunak edozein unetan aldatzen ahalko ditu.

1.4. Aipatu zerrendak deuseztatu eta bertan behera utziko ditu xede bererako aurretik egon daitezkeen beste edozein zerrenda. Hautapen prozesu honen bidez aldi baterako kontratazioak egiteko izangaien zerrendak bost urteko indarraldia izanen du, hura onartu eta indarra hartzen duenetik.

1.5. Lanpostuak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan B mailarako ezarritako ordainsariak izanen ditu, baita plantilla organikoan lanpostu horretarako ezarritako osagarriak ere.



Etxarri Aranazko Udala

1.6. Oinarri hauetan aurreikusi gabekoari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek sinatutako Lan Kontratuko Langileen Hitzarmen Kolektiboetan eta Langileen Estatutuan xedatutakoa beteko da, kontratazioa lan-erregimenekoa bada, bai eta abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua ere, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzupeko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onartzen duena, eta hura garatzeko araudia, kontratazioa bada haren ordezeko araubide administratiboa edo araudia.

1.7. Lanpostu hutsa aldi baterako betetzeko kontratatzen den pertsonak lanpostua utzi beharko du, lanpostu hori jabetzan betetzen denean eta hura betetzeko hautatuta izan dena lanpostuaz jabetzen denean.

1.8. Oinarri hauetan araututako oposizioa egin eta gero eratzen den zerrenda kudeatzeko, oinarriotan xedatuta ez dagoen orotan, jarraituko zaio Nafarroako Gobernuaren kontratazio-zerrendei aplikagarri zaion araudiari (Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesteko abenduaren 10ean emandako 814/2010 Foru Agindua).

2. OINARRIA.- IZANGAIEN BETEBEHARRAK.

2.1. Lanpostu honetarako lehiatzen direnek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

a) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio.

Orobat, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu etako herritarren ezkontideek, edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatu etako herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoez eta ezkontidearenez, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Musikako Bigarren Mailako Lanbide Heziketa, edo profesionala titulazioa edukitzea. Bibolin espezilitatean.



Etxarri Aranazko Udala

Atzerrian lorturiko tituluak izanez gero, aipatu epea betetzen den egunean, haren homologazioa frogatzen duen agiriaren jabe izatea.

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita ez izatea.

f) Haurrentzako eta nerabeentzako babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen arabera, lanpostuan aritzeko baldintza da epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

g) Edozein Enplegu Zerbitzutan enplegu-eskatzaille gisa edo lana hobetzeko inskribaturik egotea.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira aurreko baldintzak, eta hautapen-prozesuak eta kontratazioak dirauen bitartean ere bete beharko dira.

c), d), e) eta f) baldintzak izangai gaindituek egiaztatuko dituzte, kontratatzeke deia egiten den unean.

h) Eskatutako euskara-maila badakiela egiaztatzen duen dokumentazioa (C1, ahozkoa eta idatzizkoa).

2.2. Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan salbu, aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira kontratatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, euren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra galarazi gabe.

3. OINARRIA. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

3.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahaia, baina behin betiko osaera zehazten ahalko da izangai onartuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean:

- Mahaiburua: Maria Saez de Albeniz Bregaña, Etxarri Aranazko alkatea.

-1. mahaikidea: Lur Larraza López, Etxarri Aranazko Udaleko kultur zinegotzia.

-2. mahaikidea: Xabier Olcoz Pascual, Etxarri Aranazko Musika Eskolako zuzendaria.



Etxarri Aranazko Udala

-3. mahaikidea: Lorena Almandoz Mutuberria, Etxarri Aranazko udaleko kontuhartzailea.

-Idazkaria: Miren Pereda Razkin, Etxarri Aranazko Udaleko idazkaria.

3.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo dei egileari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errekusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

3.3. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa ez badago bertan. Era berean, epaimahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

3.4. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak. Puntuazioetan berdinketarik balego, lehendakariaren kalitatezko botoaren bidez erabakiko da.

3.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake probarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta epaimahaiari horietan bakarrik emanen diote laguntza.

4. OINARRIA.- OPOSIZIO-LEIHAKETAREN HAUTAPROBAK

4.1. Kontrataziorako hautaprobak oposizio-lehiaketa bidez egingen dira.

4.2. Lehiaketaldia:

Musika-eskoletan irakasle gisa izandako esperientzia baloratuko da, bibolin espezialitatean, lan egindako urte oso bakoitzeko 2.5 puntu, gehienez 25 puntu.

Merezimendu profesionalak dagokion erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira. Ziurtagirian agertu behar dira zerbitzuaren iraupena eta betetako lanbide-kategoria. Dokumentazio horretan agertu behar dira izendapenaren edo lan-harremanaren hasiera eguna eta amaiera eguna (edo, kasua bada, indarrean jarraitzen duela), izendapenaren eta kontratuaren xedea eta lanaldi mota.



Etxarri Aranazko Udala

Deialdia egiten duen toki erakundeari badagokio ziurtagiri hori ematea, eskatzaileak ez du aurkeztu beharko.

Lanpostuarekin zerikusia duten kurtsoak baloratuko dira, aurkezten den espezialitatean, modu honetan:

Ordu batetik 5 ordurako ikastaroak: 3 puntu ikastaro bakoitzeko.

-5 ordutik 10 ordura arteko ikastaroak: 6 puntu ikastaro bakoitzeko.

-10 ordutik gorako ikastaroak: 12 puntu ikastaro bakoitzeko.

Gehienez 25 puntu.

Oharrak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, izangaiei emango zaie zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa.

2. Gehieneko puntuazioa ez da inongo kasutan izanen 25 puntutik gorakoa.

3.-Egindako zerbitzuak baloratuko dira zerbitzu aldi bakoitzaren hasiera egunetik amaierara arte, egindako lanaldiaren ehunekoia edozein dela ere.

4.-Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5.-Izangaia prestakuntzarako zerbitzu berezietan edo jarduneko zerbitzu bereziko egoeran egon den aldiak benetan bete duen lanpostuan egindako zerbitzuak balira bezala kontatuko dira

Izangaia zerbitzu berezietan egon bada beste arrazoi batzuegatik, edo eszedentzia berezian egon bada, edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan, aldi horietako zerbitzuak kontatzeko, egoera horietan sartzean zuen lanpostuan egin izan balitu bezala kontatuko dira.

6. Aurreko azpiataletan emandako puntuazioak bateraezinak izanen dira epe berari dagozkionean. Halakoetan, kasu bakoitzean duen puntuazio altuena emanen da.

Ez dira kontuan hartuko edo baloratuko aurkezteko epea ixtean egiaztatuta ez dauden merezimenduak. Hala ere, merezimendu bat behar bezala egiaztatuta ez dagoela uste badu, epaimahai kalifikatzaileak dokumentazioa gehitzeko eska dezake.

4.3. Oposizioaldia: Proba honetan izangaiak klase praktiko bat eman beharko du, gehienez ere hamar minutuz. Alderdi hauek baloratuko dira: komunikazioa, ikaslearekiko



Etxarri Aranazko Udala

harremana, aurkikuntza bidezko ikaskuntza, musikako adibideen erabilera, eta baliabide eta estrategia ezberdinen erabilera betiere musikako helburua erdieste aldera, baita izangaiari egokiak iruditzen zaizkion beste batzuk ere. Epaimahaiak egoki juzgatzen dituen argibide oro eskatzen ahalko ditu.

Proba hau 0 eta 50 puntu bitartean kalifikatuko da, eta gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

4.4. Probarako deialdia espezialitateen arabeko deien bidez egingo da, eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala aldean eraman beharko dute. Bertaratzen ez diren izangaiaik bazterturik geldituko dira.

4.5. Hautapen probak egiteko, eskaera egin duten minusbaliatuentzat bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak egingen dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

5. OINARRIA.- HAUTATZEKO PROZEDURA.

5.1. Deialdi honen xede diren zerrendak lehenbailehen sortu behar direnez, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko erregelamendua onartzen duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuaren 42.2 d) artikuluan jasotako salbuespenetzko prozeduraren babesean eta ahalik eta lasterren egingo da.

Hautaketa prozedura honako hau izanen da:

5.2. Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzura bidaliko da bibolin irakasle lanposturako eskaintza, lanaldi partzialean eta aldi baterako, oinarri hauetan lanposturako eskatzen diren baldintzekin. Era berean, deialdia Etxarri Aranazko Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da. Hautaketa-prozesurako onartu ahal izango dira baldintza horiek betetzen dituzten eta beste edozein enplegu-bulegotan enplegu-eskatzaile gisa dauden eta eskabidearekin batera egiaztatzen duten izangaiaik.

5.3. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskaintzaren berri emango die langabe gisa inskribatuta dauden edo enplegua hobetzen duten pertsoneri, betiere deialdian adierazitako baldintzak betetzen badituzte, eta hartan, parte hartzeko eskaera aurkezteko epea adieraziko da.

5.4. Eskabideek deialdian argitaratutako erdua bete beharko dute (I. eranskina), eta, bertan, izangaieki adierazi beharko dute parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela, aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkionak.



Etxarri Aranazko Udala

Desgaitasun aitortua duten izangaiek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izango dute eskabidean eskatzea, eta hartarako, aparteko orri batean adierazi beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, desgaitasuna dutela frogatzeko agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

Era berean, eskabidearekin batera aurkeztuko dira izangaiek aurkeztu nahi dituzten merezimenduak. Merezimendu horiek agiri bidez aurkeztu eta egiaztatu beharko dira atxikita dauden eskabidea aurkeztean.

Parte hartzeko eskabideak Etxarri Aranazko Udalaren bulegoetan aurkeztuko dira (Kale Nagusia 10), jendearentzako ordutegian (10:00-14:00) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz, eskaerak aurkezteko epea 2025eko martxoaren 28a izango da. Eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela.

Eskabideak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoaren babesean aurkezten direnean, Etxarri Aranazko Udalaren Erregistro Orokorra ez den beste edozein erregistrotan, eskatzaileek eskaera-agiriaren kopia bidali beharko dute udala@etxarriaranatz.eus helbidera, eskabideak aurkezteko epearen barruan, non zigilua eta dagokion erregistroaren sarrera-data egiaztatuta dauden.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian egingen da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu aurretik.

Era berean, eskabideak eta agiriak bide telematikoak aurkeztu ahal izango dira Etxarri Aranazko Udaleko Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, Etxarri Aranazko Udalaren webgunetik sartuta.

5.5. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da.

5.6. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko da, eta Etxarri Aranazko Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da.

5.7. Behin-behineko zerrenda Etxarri Aranazko Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratu eta hurrengo 5 egun baliodunetan, izangaiek erreklamazioak aurkeztu ahal izango



Etxarri Aranazko Udala

dituzte, eta, hala badagokio, akatsak zuzendu, Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztutako idazki baten bidez.

5.8. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, Etxarri Aranazko Udaleko Alkatetzak onartutako en eta baztertutako en behin betiko zerrenda onartuko du, eta Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian argitaratzeko aginduko du, deialdi honetan aurreikusitako hautaprobak egiteko data eta tokiarekin batera.

5.9. Inor baztertzen ez bada, zuzenean argitaratuko da behin betiko zerrenda, eta zerrenda horretan bertan jarriko dira hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokia.

5.10. Onartutako en eta baztertutako en zerrendak argitaratuz gero, dagokien jakinarazpena egindakotzat joko da, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publiko en Administrazio Prozedura Erkidearena.

6. OINARRIA.- GAINDITU DUTENEN ZERRENDA

6.1. Probaren kalifikazioa amaitutako en, epaimahaiak lortutako puntuazioaren arabera gainditu duten pertso en zerrenda argitaratuko du Etxarri Aranazko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean, eta hiru (3) egun balioduneko epea irekiko du emaitzen gaineko alegazioak egiteko.

6.2. Alegazioak aurkezteko epea igaro eta alegazio horiek ebatzi ondoren, epaimahaiak irizpide hauen arabera ebatziko ditu parte-hartzaileen artean puntuazioan gerta daitezkeen berdinketak:

a) Berdinketak oposizio-fasean puntuaziorik onena lortu du en hautagaiaren alde ebatziko dira.

b) Berdinketak jarraitzen badu, epaimahai kalifikatzaileak horretarako egindako zozketa bakar baten bidez ebatziko dira. Alfabetoko bi letra aterako dira ausaz, eta berdinketak lehen abizenaren hurrenkera alfabetikoaren arabera ebatziko dira, lortutako bi letretatik abiatuta.

6.3. Aurkeztutako alegazioak eta, hala badagokio, berdinketak ebatzi ondoren, prozesua gainditu duten pertso en zerrenda argitaratuko du epaimahaiak 6.1 puntuan adierazitako hedabideetan.

6.4. Halaber, epaimahaiak deialdi honetan aipatzen den hautagai-zerrenda ordenatua bidaliko dio Alkatetzari, onar dezan, hautaketa-prozesuaren espediente osoarekin batera. Zerrenda hori iragarki-taulan eta Etxarri Aranazko Udalaren web-orrian argitaratuko da.



Etxarri Aranazko Udala

7. OINARRIA.- DEIALDIA ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO

7.1. Gainditu duten izangaiei Etxarri Aranazko Musika Eskolan gertatzen diren premien arabera deitu ahal izanen zaie, deialdi honetako oinarrietan ezarritakoari eta aplikatzekoak diren gainerako araei jarraituz.

7.2. Deialdia eta, hala badagokio, kontratazioa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzupeko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikuluan eta hurrengoetan, deialdi honen oinarrietan, aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onartzen dituen Lehendakaritza, Justizia eta Barne sailburuaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduan eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Aurrekoa gorabehera, langileei dei egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriko 4. idatz-zatian ezarritakoa, zeinak Nafarroako Administrazio Publikoetan desgaitasuna duten pertsonak enplegua lortzeko alderdiak arautzen baititu.

7.3. Kontratatzeko deitutako izangaiak, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babesteko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikuluan ezarritako betekizuna betez, egiaztatu behar du ez duela epai irmo bidez kondenarik jaso sexu-askatasunaren edo -ukigabetasunaren aurkako edozein deliturengatik, delitu horiek Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluaren tipifikatuta badaude, ez eta Zigor Kodearen VII bis tituluaren tipifikatutako gizakien salerosketako edozein deliturengatik ere, hori eskuratu ahal izateko, sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztuz.

7.4. Kontratadunak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartu eta bertan kidetuko dira; beraz, haien kontu izanen dira dagokien kuota eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipena, bidezko diren kopuruetan.

8. OINARRIA.- DATUEN BABESA.

Bat etorriz 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (DBEO) 13. artikuluekin, izangaiei honako honen berri ematen zaie:

-Etxarri Aranazko Udala da parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.

-Langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea da deialdi honen xedea.



Etxarri Aranazko Udala

-Oinarri juridikoa honako hau da: DBEOren 6.1.c) artikulua, interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, hark eskatuta, kontratu aurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua, eta DBEOren 6.1) artikulua, tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzeko behar den tratamendua.

-Datuak biltzen diren helburua betetzeko eta deialdiaren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (Nafarroako toki-erakundeetako dokumentuak ebaluatzeko eta ezabatzeko jarraibideak).

-Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa), baita haiek Gardentasun Atarian argitaratzea ere, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat.

-Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak erabil ditzakete udal-bulegoetan. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es) erreklamazio bat aurkezteko, baldin eta uste badu tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin.

9. OINARRIA. ERREKURTSOAK.

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, salbu kalifikazio-epaimahaiaren egintzak badira, errekurtsio hauetakoren bat aurkezten ahalko da:

a) Berraztertzearen errekurtsioa, egintza gauzatu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsioaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.



Etxarri Aranazko Udala

ESKABIDE ORRIA (I. ERANSKINA).

Izen-abizenak:.....,
adinez nagusia, NAN zenbakia: Jaioteguna:
Jaioterria (.....). Bizitokia :.....
(.....), kalea/zenbakia/solairua
Posta-kodea: Telefono mugikorra: Helbide
elektronikoa: agertu eta egoki den
moduan, ESKATZEN DUT:

✓ Etxarri Aranazko Musika Eskolako bibolin lanpostua betetzeko hautagai zerrenda osatzeko deialdian onartua izatea.

✓ Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.

✓ Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

✓ Ez naizela diziplinako espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik kanpo utzia izan, eta, era berean, ez nautela eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi.

✓ Badudala deialdian adierazten den titulazioa.

✓ Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, behar diren baldintza guztiak betetzen ditudala. Desgaitasuna dudala eta, beraz, behar ditudan egokitzapenak eskatzen ditudala, haietarako arrazoiak adierazita. (Eskatzen diren egokitzapenak eta haietarako arrazoiak azaldu).

Desgaitasuna frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana
.....

Euskara proba egitea eskatzen dudala.

✓ Eskabideari agiri hauen fotokopiak erantsi dizkiodala:

o Nortasun agiri nazionala.

o Eskatzen den titulazio akademikoa eta euskara titulua.

o Merezimenduak, lehiaketaldirako.

o Enplegu-eskatzailearen edo enplegu hobekuntzaren txartelaren kopia.

Minusbaliatua naizela frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.

Azaldutakoagatik, honako hau ESKATZEN DUT:

Onartua izatea Etxarri Aranazko Musika Eskolako bibolin lanpostua aldi baterako eta zerrendak sortzeko deialdian.

Etxarri Aranazko, 2025eko(a)ren.....(e)an

(Sinadura)